

EH Bilduren ekimenez, Amurrioko Udalak Diru-laguntzen Plana eta Udal Ekipamenduen Plana egingo ditu

Koalizioak udalerriko alderdi politikoekin akordio bat lortu du irabazimoz asmorik gabeko elkarteei eta klubei diru-laguntzak emateko plan bat egiteko

Abenduan eta urtarrilean udalerriko kirol-eragileekin bilerak egin ondoren, EH Bilduk mozio bat aurkeztu zuen apirilaren 6an, Amurrioko Udalari eskatuz eguneratu zitzala irabazteko asmorik gabeko klub eta elkarteei diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

Koalizioak akordio bat lortu du udalerriko indar politiko guztiekin diru-laguntza plan bat egiteko. Plan hori uztaila baino lehen aurkeztuko da dagokion batzordean, eta oposizioak aztertu eta hobekuntzak proposatu ahal izango ditu, ondoren osoko bilkuran onartzeko.

"Amurriok 40 kirol elkarte eta klub baino gehiago ditu. Kirol diziplina askotaz gozatu ahal izateko pribilegioa dugu, beste udalerriri batzuetara joan beharrik gabe, baina elkarte eta klub horien atzean dauden boluntario guztiak zaindu, mimatu eta bitartekoak jarri behar zaizkie", adierazi du Maitane Salutregi Gardeazabal zinegotziak.

Era berean, 2022ko urtarrilari begira, konpromisoa hartu da udal ekipamenduen gida-plan bat egiteko. Plan horretan, elkarte horien egoitzen kokapena erabakiko da, erabilera arrazionalagoa bilatzeko eta haien beharretara ahalik eta hobekien egokitzeko. Akordioan jasotzen den bezala, modu parte-hartzailean egingo da, teknikari eta politikariekin, kirol-, kultura- eta gizarte-eragileekin eta Amurrioko herritarrekin batera. Diru-laguntzen planarekin bezala, oposizioak ere zuzenketak egin ahal izango ditu.

A iniciativa de EH Bildu, el Ayuntamiento de Amurrio realizará un Plan de Subvenciones y un Plan Director de Equipamientos Municipales

ehbildu

La coalición ha logrado un acuerdo con el resto de las fuerzas políticas del municipio para la realización de un plan de subvenciones a asociaciones y clubs sin ánimo de lucro

Después de haber realizado reuniones con los agentes deportivos del municipio durante los meses de diciembre y enero, EH Bildu presentó el pasado 6 de abril una moción en la que instaba al Ayuntamiento de Amurrio a actualizar los criterios para asignar las subvenciones a los clubs y asociaciones sin ánimo de lucro.

La coalición ha logrado un acuerdo con todas las fuerzas políticas del municipio para la realización de un plan de subvenciones. Dicho plan será presentado antes del mes de julio en la comisión correspondiente y la oposición podrá estudiarlo y proponer mejoras para su posterior aprobación en el pleno.

“Amurrio cuenta con más de 40 asociaciones y clubs deportivos. Tenemos el privilegio de poder disfrutar de muchas disciplinas deportivas sin necesidad de desplazarnos a otros municipios, pero a toda la gente voluntaria que hay detrás de esas asociaciones y clubs hay que cuidarla, mimarla y dotarla de medios” ha apuntado la concejal Maitane Salutregi Gardeazabal.

Asimismo, de cara a enero de 2022, se ha adquirido el compromiso de realizar un plan director de equipamientos municipales en el que se decida la ubicación de las sedes de los citados club y asociaciones, para buscar un uso más racional y que se adecue lo mejor posible a las necesidades de estos. Tal y como se recoge en el acuerdo se elaborará de forma participativa, contando tanto con el personal técnico y político, así como los agentes deportivos, culturales y sociales, además de la ciudadanía de Amurrio. Al igual que con el Plan de Subvenciones, este también podrá ser enmendado por la oposición.